

Errosarixo-bixamoneko pasakallia

San Migelak be badatozela-ta, jaixetako fotografixia ifiñiko dogu hillabete honetako saillian. Ospetsuak eta jentetsuak izaten ziran Oñatin bixamon bixetan —San Migel nahiz Errosarixo-bixamon egunian— goizeko zezenaren ondoren egitten ziran pasakalliak. Antonino **Ibarrondoren** zuzendaritzapecian herriko bandiak jotzen eben *Pa, pa, pa, / pa, pa, para, ra, pa, pa / pa, pa, pa* soinu alegriak jera-jeraka eta saltoka jarten eben gazte-jentia.

Argazki honetan neska-pilla ederra ikusten da Kale Zaharrian behera, Perratzailliena eta Illarramendiñeko kantoi inguruan. Aurretik atzera eta ezkerretik eskumara honeik ezagutu dittugu.

Aurenengo ilaran: Mari Karmen **Mugartza**, Maria Angeles **Alzelai**, Maixita **Igartua** eta Teretxu **Urtaza**.

Bigarren ilaran: Ana Mari **Aberasturi**, Maria Jesus **Aberasturi**, Kontxita **Ugarte** eta Mari Sol **Sansinenea**.

Hirugarren ilaran: Rosarito **Galdos**, Maribi **Ugarte**, Mixabel **Elortza** eta Kontxita **Astiazaran**. Espaloitik doian mutikua Patxi **Aranburu**.

Laugarren ilaran: Pilar **Igartua**, Tere **Letamendi**; erdi ezkutuan Aranzazu **Gorbea** eta Kontxita **Urtaza**. Eskumako neskek eta umiak ezezagunak.

Bosgarren ilaran: [?] **Olalde**, Maixabel **Olalde**, Bixenta **Zugasti** eta Margarita **Olalde**.

Atzeko ilarretan: Karmen **Antigua**, Nieves **Zelaia**, Juanita **Arriaran**, Mari Karmen **Madina**, Ana Mari **Lopez** eta beste hainbat neskatilla gazte Antonino Ibarrondo eta bandiaren aurretik.

Batetik gaztien itxuria eta jazkeria, eta bestetik kaleko adokiñak oraindiodiok kendu barik dagozela kontuan izanda, fotografixia 1957 ingurukua dala uste dogu.

J. E.

Argazkixa Tere Letamendik itxittakua da eta argibidiak Terek berak, Maixabel Elortzak eta Juli Odriozolak emun doskue.

Oharra: Orain hurrengo aleko antxiñako fotografixian goixeneko ilaran identifikau barik geratu xakun emakume bakarra zein dan jakin ahal izan dogu Maixabel Aranbururi eskerrak: Modesta Gorostidi, Kanpantxo eta Kale Zahar aldian bizi izan zana.

M. AGVIRREVRRETA OKINDEGIA

Berezano auzoa, 21
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54
ONATI

ALOÑA

Autoeskola



Ramon Irizar, 3 behea
Tfnoa: 78 24 91
ONATI